

**2008-2012
MUSKIZKO
UDALEKO
EUSKARA PLANA**

AURKIBIDEA:

ORRIALDEA:

1. PLANAREN EGUNERATZEAREN TESTUINGURUA.....	1
2. HELBURUAK.....	2
3.MUSKIZKO UDALA.....	5
3.1. Muskizko udaleko atalen sailkapena:.....	5
3.2. Parte hartzaileak.....	8
3.3. Hizkuntza egoera.....	11
3.3.1.Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila (HEEM).....	11
3.3.2. Euskara plana.....	15
3.3.3. Arduradun politikoen euskara maila.....	16
3.3.4. Hizkuntza paisaia.....	16
3.3.4.1. Errotulazioa.....	17
3.3.4.2. Tresneria.....	17
3.3.4.3. Papeleria.....	18
3.3.4.4. Udaletxeko sarrerako esku-orrien eta beste informazio batzuen apala.....	18
3.3.5. Aplikazio informatikoak.....	19
3.3.6. Hizkuntza irizpideak.....	20
3.3.7. Kanpo proiektzioa.....	21
3.3.8. Barne eta kanpo harremanak.....	22
3.3.8.1. Telefono bidezko lehen hitza.....	23
3.3.8.2. Lan jardunak sortzen dituen barne dokumentu nabarmenen hizkuntza egoeraren azterketa.....	23
3.3.9. Kanpo hizkuntza eskaera.....	25
3.3.10. Itzulpenak.....	27

4. OINARRIZKO ESTRATEGIAK,ESTRATEGIAK, EKINTZAK ETA KRONOGRAMA	28
4.1. Oinarrizko estrategiak:.....	28
4.2. Estrategiak	28
4.3. Ekintzak	30
4.4. Kronograma.....	35
5. KONTRATAZIO ARLOAN PROPOSATUKO DIREN NEURRIAK	37
I. ERANSKINA.(Helburuen lorpen adierazleak)	38
II.ERANSKINA.(Datu bilketarako txantiloiak)	46
III. ERANSKINA (Hizkuntza irizpideak)	67

EGILEAK:

Ane Oregi Azkarate; Muskizko
Udaleko Euskara Teknikaria.

Susana Barrio Diaz: Euskara
Teknikariaren laguntzailea.

1. PLANAREN EGUNERATZEAREN TESTUINGURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du eta administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen derrigorrezko ezagutza duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua, eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak, euskararen ofizialtasuna funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik, herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuaren oinarri ere badira.

Honi loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan duen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan da.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak¹, elementu berriak erantsi dizkie lehenengo plangintzaldiako arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman baziren euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileen kopuruan, bigarren plangintzaldiatik aurrera administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra azaltzen dira.

Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxienerako osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Urrats horiekin loturik, Muskizko Udalak, beraz, indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betetz, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzeko plana landu eta onartu zuen 2003ko abenduaren 19an..

¹ Dekretuak indarrean jarraitzen du eta III. Plangintzaldia 2003ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31 arte iraungo du.

86/1997 DEKRETUAK, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, bere 19. atalean ezartzen du: bere menpeko administrazioek , eta hemen Muskizko Udalerria kokatzen da, bere euskararen erabilera plana onartu behar dute plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, edota onartuta izatekotan eguneratu.

Muskizko Udaletxeak bere lehenengo *MUSKIZKO UDALEKO EUSKARA PLANA, Udal barneko euskararen erabilera Plana*, 2003ko abenduaren 19an onartu zuen udalbatzan. Tamalez, dokumentu hori papel hutsean geratu egin zen. Plana 2003.-2007.urte bitartean garatu beharrekoa zen, eta orain 86/1997 Dekretuak arautzen duena betez Plana eguneratuta aurkezten da.

Plan hau 2008-2012urte bitartean garatuko da, eta aurreko plangintzaldian hasitakoarekin jarraituko du, nahiz zenbait berriztapen esanguratsu barneratzen dituen:

- Udaleko biztanleria kopuru eta izaera aldaketen ondorioz, epealdi honetan, 2008-2012, Muskizko Udala 86/1997 Dekretuaren 17. Atalari jarraiki bigarren helburu mailakatuan kokatzen da eta ez lehenengoan, aurreko epealdian bezala.

- Ezarritako helburuak lortzeko ekintzak era zehatzago baten azalduko dira. Eta helburuen lorpen maila neurtzeko orduan adierazleak ere ezarri dira.

2. HELBURUAK

Herri Administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara-planen **helburu nagusia**, bai zerbitzu-hizkuntza, bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara Planon **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz.

2. Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.

3. Hala dagokionean, Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

Testuinguru honetan EAEko Euskararen Erabilera Arauzkotzezko 10/1982 Oinarrizko Legea onartu zenetik, herri-administrazioetan hainbat urrats eman da euskararen normalizazioa sustatu eta lortzarren. Horrela, EAEko uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea garatuz, herri-administrazioek, besteak beste, bertako langileek bere lan-eginkizunak euskaraz betetzeko hizkuntzaren ezagutza-maila egokia lor zezaten neurriak hartu zituzten, 1990-1995 plangintzaldian.

86/97 Dekretuak aurreko plangintzaldian egindako ibilbideari jarraitu eta ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko oinarriak ezarri zituen. Bigarren plangintzalditik aurrera eginbeharreko nagusia erakunde bakoitzak bere hizkuntza-egoeratik abiatuz *euskararen erabilera normalizatzeko planak*² zehaztea eta abian jartzea izango da.

Muskizko Udalaren Euskara Sailak 2008-2012 plangintza epealdi honetarako markatutako helburuen artean euskararen normalizazio lanak eta udal barruko Erabilera Planaren garapena azpimarratu ditu. Udal barruko plan honi dagokionez sail honek **markatutako ildo nagusiak besteak beste hauek dira:**

- 1.Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu.
- 2.Euskararen idatzizko erabilera gehitu.
- 3.Euskararen ahozko erabilera gehitu.
- 4.Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu.

HELBURU OROKOR hauek beste helburu zehatz hauen bidez gauzatuko ditugu:

1.Langileen hizkuntza gaitasuna gehitu.

- 1.1. Hizkuntza eskakizunen egiaztapena bultzatu.
- 1.2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenen mailari eutsi edo maila hori hobetu.
- 1.3. Agintari politikoen euskararen ezagutza maila gehitu.

² Hemendik aurrera, "Euskara Plana" deituko zaie.

2.Euskararen idatzizko erabilera gehitu.

- 2.1. Orokorrean idatzizko kanpo harremanetan euskaren erabilera gehitu.
- 2.2. Erabilera planaren eraginpeko langileen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- 2.3. Orokorrean idatzizko barne harremanetan euskaren erabilera gehitu.
- 2.4. Erabilera planaren eraginpeko langileen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuaz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- 2.5. Idatzizko harremanetan euskarazko dokumentuen kalitatea bermatu.

3.Euskararen ahozko erabilera gehitu.

- 3.1. Ahozko kanpo harremanetan euskararen erabilera gehitu.
- 3.2. Ahozko barne harremanetan euskararen erabilera gehitu.
- 3.3. Ahozko diskurtsoen kalitatea bermatu.

4.Irudi korporatiboan euskararen erabilera gehitu.

- 4.1. Hizkuntza paisaian euskaren presentzia gehitu.
- 4.2. Argitaratzen diren liburuetan euskararen presentzia gehitu.
- 4.3. Aldizkarietan euskararen presentzia gehitu.
- 4.4. Web orriko edukietan euskararen presentzia gehitu.
- 4.5. Baliabide informatikoetan euskararen presentzia gehitu.
- 4.6. Iragarpenetan Legea betetzen dela bermatu.
- 4.7. Kontratazioetan Legea betetzen dela bermatu.
- 4.8. Hizkuntzaren erabilera kontutan izan diru laguntzak esleitzerakoan.

I. Eranskinean azaltzen da helburu hauen lorpen maila neurtzeko erabiliko diren adierazleak eta hauen gaurko egoera, 2012.urtean, bere kasuan, egindako aurrerapenak neurtu ahal izateko.

Helburu hauek lortzeko aurrerago azalduko dira zeintzuk diren **oinarrizko estrategiak** eta hauek zein **estategien** bidez gauzatuko diren. Baita estrategia bakoitza zein **ekintza** zehatzen bidez egikarituko den eta ekintza hauek denboran zehar noiz egikarituko diren azaltzen duen **kronograma**.

3. MUSKIZKO UDALA

3.1. Muskizko udaleko atalen sailkapena:

Honako hau dugu Muskizko Udaleko atalen izaera kontutan harturik, Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera egindako atalen sailkapena:

	JENDE AURREKOA	GIZARTE- MAILAKOA	ATAL OROKORRA	ATAL BEREZIA
ZERBITZU OROKORRAK				
HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK				
GIZARTE ONGIZATEA				
KULTURA ETA HEZKUNTZA				
UDALZAINGOA				
FORLAN				

Ez dago, beraz, Muskizko Udalean jendaurreko atal osorik, beraz Euskararen Plana burutzeko funtsezko beste datu bat da, zeintzuk diren **jendaurreko lanpostuak** ezartzea:

	JENDEAURREKO LANPOSTUAK
ZERBITZU OROKORRAK	4. Herritarrei arreta zerbitzuetarako administraria 5. Administrari laguntzailea 6. Administrari laguntzailea
HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK	14. Hirigintzako administraria 15. Administrari laguntzailea
GIZARTE ONGIZATEA	24. Gizarte langilea 26. Administrari laguntzailea. 27. Atezaina
KULTURA ETA HEZKUNTZA	30. Liburuzaina 32. Atezaina 33. Ikastetxeko atezaina
UDALZAINGOA	34.-42. Udaltzainak txandaka

Aurreko plangintzaldian (2003-2007), Muskizko biztanleria kopurua eta honen euskalduntze mailaren arabera, 86/1997 dekretuaren 11.atalean ezarritakoa jarraituz derrigorrez bete beharreko indizea derrigorrezkotasunen portzentaia³ %21,06koa zen. Datorkigun plangintzaldirako, aldiz, indizea %27,69koa da⁴, ondorioz 86/1997 Dekretuko 17. Atalean bildutako gutxienezko helburuen maila ere aldatu egin da; IV plangintzaldi honetan helburu mailakatuen 2. mailan kokatzen garelarik.

Lanpostu kopurua, 86/1997 dekretuaren 14.atalaren arabera, Teknikari Gaitua kontutan hartu gabe, 41ekoa da. Ondorioz 11⁵ dira derrigortasun data izan beharko zuten lanpostuak eta 14 dira derrigortasun hori ezarriak dutenak, alde honetatik, beraz, Dekretuak ezarritakoa gainditzen du Muskizko udaleko langileriak.

Apirilak 15eko 86/1997 dekretuaren 17. Atalak zera ezartzen du:.

17. atala.– Euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, ondoren aipatuko diren gutxieneko helburuak ezarri dira. Dekretuaren ezarpen-esparruan dauden erakundeetako bakoitzak dagozkion gutxieneko helburu horiek lortu beharko ditu derrigortasun bete beharreko indizeak ahalbidetzen dion heinean:

a) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

Beraz, gutxieneko helburu mailakatuan bigarren mailan egoteak suposatzen du, alde batetik administrazio atal elebidunak ezarri behar direla ondorengo ataletan; jende aurrekoetan, gazteriarekin harreman zuzen eta ohiko dutenetan eta gizarte izaerako ataletan; eta bestetik mikroplanak jorratu behar direla gizarte izaerako eta maila orokorreko ataletan.

³ 1996ko erroldaren arabera.

⁴ 2001ko erroldaren arabera

⁵ 11,076 lanpostuk

Atal elebidunak izendatzerako orduan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordearen iritziz, ondorengo baldintzak izan behar dira kontutan:

- a) *Atala osatzen duten lanpostu denek edo ia denek (%80) derrigortasun-data izatea euren lanpostuetan.*

Baldintza hau betetzen ditu udaleko Zerbitzu Orokorra atalak. Baina bigarren baldintza hau ere kontutan hartu behar da:

- b) *Ataleko langile denek edo ia denek (%80) nork bere lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea. Eta egiaztatze kopurua (80%) kalkulatzeko orduan ondokoa izan behar da kontutan*
b.1.-4.HE ezarrita duten lanpostuetan , 3HE egiaztatua izatea hartuko da kontuan atalen sailkapena egiteko orduan.
b.2- Derrigortasun-data duten lanpostuetan salbuetsita daudenak ere egiaztatua izan beharko dute.

Zerbitzu Orokorra atalak ez du baldintza hau betetzen, lanpostuen %50ek besterik ez baitu egiaztatu ezarritako HE, eta derrigortasun-data ezarria dutenen %62.

Ondorioz; Muskizko Udalean ez dago baldintza horiek betetzen dituen atal bat ere ez, Hau dela eta:

- Muskizko Udalean Euskara Plana mikroplanen bidez egiten jarraituko da aurreko plangitza epealdian bezala..
- Ezinbesteko ikusten da, derrigortasun-data ezarrita eta egiaztatu gabe duten lanpostuetako langileak eskolaratzeko plana egitea.
- Aurrerantzean udalean sor daitezkeen lanpostu berrietan HEren ezarpena eta egiaztapena kontuan hartuko da. Ikusi beharko da, hori gertatzen denean eta HPSrekin Planaren aldaketaren komenigarritasuna.
- Aztertuko da era berean, nahiz Derrigortasun daten gutxieneko kopurua gainditu, berriak ezartzearen beharra.

3.2. PARTE HARTZAILEAK

Honako lanpostu hauek betetzen dituzten langileek Lanpostuei dagokien HEak Derrigortasun data igarota ez dute HEik egiaztatu.

LANP. KOD.	ADMINISTRAZIO ATALA	LANPOSTUAREN IZENA	HE	D.D	EGI HE	DATA(1)
2	ZERBITZU OROKORRAK	KONTU HARTZAILEA	4	29/02/1996	0	
8	ZERBITZU OROKORRAK	ADMINISTRARIA (kontu hartzailea)	3	31/12/1994	0	
9	ZERBITZU OROKORRAK	ADMINISTRARIA (diruzaintza)	3	31/12/1994	0	
24*	GIZARTE ONGIZATEA	GIZARTE LANGILEA	3	31/12/1994	1	29/08/1994
39	UDALTZAINGOA	UDALTZAINA	2	01/07/2000	0	

*Bere garaian lehenengo HE egiaztatu zuen, baina 86/1997 Dekretuaren 37.atalaren arabera hau baliogabetua geratu zen 29/06/1999an, duela 9 urte.

Eusko Jaurlaritza Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko Irizpideak izeneko gidan, 3.4. IV. Plangintzaldiaren oinarriak eta partehartzaileak atalean ezartzen du Parte hartzaileak izango direla: 1.Derrigortasun data ezarria izanik , dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten guzti-guztiak;eta bestetik, 2. Borondatez, derrigortasun data ezarri gabe izanik dagokien HE egiaztatu dutenak. Gainera,salbuespen gisa, zenbait lanpostuen lan-jarduera estrategikotzat jotzen badira, erakundeak gonbita egin ahal izango die derrigortasun data izanik dagokien hizkuntza eskakizuna baino bat gutxiago egiaztatu dutenei.

1. DERRIGORTASUN DATA JARRIA DUTENAK ETA HE EGIAZTATU DUTENAK

LANP.KOD.	ADMINISTRAZIO ATALA	LANPOSTUAREN IZENA	HE	DERRIG. DATA
1	ZERBITZU OROKORRAK	IDAZKARIA	4	29/02/1996
3	ZERBITZU OROKORRAK	IDAZKARITZAKO ADMINISTRARIA	3	31/12/1994
4	ZERBITZU OROKORRAK	HERRITARREI ARRETA ZERB.ADMINI	3	31/12/2002
5	ZERBITZU OROKORRAK	ADM. LAGUNTZAILEA	3	31/12/1994
31	KULTURA ETA HEZKUNTZA	KULTUR ETXEKO ZERBITZU LAGUNTZAILEA	3	19/12/2003
6	ZERBITZU OROKORRAK	ADM. LAGUNTZAILEA	2	31/12/2002
34	UDALTZAINGOA	UDALTZAIN BURUA	2	31/12/2002
40	UDALTZAINGOA	UDALTZAINA	2	01/07/2000
41	UDALTZAINGOA	UDALTZAINA	2	31/12/2002

- Udal Euskaltegiko idazkaria nahiz eta lantaldeetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen,lantaldeetatik kanpo geratzen da,Udal Euskaltegiak ez baitu planean barneratzeko beharrik, bere baitan euskararen erabilera ziurtatua baitago.

2. DERRIGORTASUN DATA EZARRI GABE IZANIK DAGOKIEN HE EGIAZTATU DUTENAK

Ondorengo zerrendan ikus daitekeen bezala, baldintza hau betetzen duen langile bakarra dago, baina planarekiko estrategikoa diren lanpostuak izanik, kontuan izan dira derrigortasun data ezarri gabe eta dagokien HE baino bat gutxiago egiaztatu dutenak

LANP.KOD.	ADMINISTRAZIO ATALA	LANPOSTUAREN IZENA	HE	EGI HE
38	UDALTAINGOA	UDALTZAINA	2	2
26*	GIZARTE ONGIZATEA	GIZARTE ONGIZATEKO LAGUNTZAILEA	2	1
14*	HIRIGINTZA, OBRAK-ZERBITZUAK	HIRIGINTZAKO ADMINISTRARIA	3	2
28*	KULTURA ETA HEZKUNTZA	KUL., HEZ., KIR-EUSK. KOORDINATZ.	4	3
30*	KULTURA ETA HEZKUNTZA	LIBURUZAINA	4	3

* Kontutan izan dira, eskatzen zaien HE baino maila bat baxuagoa ziurtatu dutenak.

3. BESTE GONBIDATU BATZUK

Eusko Jaurlaritzak era honetako irizpiderik ezarri ez badu ere, Muskizko Udaleko Euskara Zerbitzutik, beharrezkotzat jotzen dugu, aurreko bi taldeetan sartzen ez diren baina jendaurreko lanpostuak betetzen dituzten langileak ere gonbidatzea. Hauek dira aipaturiko lanpostuak:

LANP.K OD.	ADMINISTRAZIO ATALA	LANPOSTUAREN IZENA	HE	DERRIG. DATA	EGI HE	DATA(1)
15	HIRIGINTZA, OBRAK-ZERBITZUAK	ADM.LAGUNTZAILEA	2		0	
24	GIZARTE ONGIZATEA	GIZARTE LANGILEA	3	94/12/31	1	29/08/1994
27	GIZARTE ONGIZATEA	ATEZAINA	1		0	
32	KULTURA ETA HEZKUNTZA	IKASTETXEKO URGAZLEA	1		0	
33	KULTURA ETA HEZKUNTZA	KULTUR ETXEKO ATEZAIN LAGUNTZAILEA	1		0	
36	UDALTAINGOA	UDALTZAINA	2		1	2005
39	UDALTAINGOA	UDALTZAINA	2	01/07/2000	0	
42	UDALTAINGOA	UDALTZAINA	2		0	

Hauetaz aparte, euskara maila polita izateagatik honako langileak ere gonbidatuko ditugu:

LANP.K OD.	ADMINISTRAZIO ATALA	LANPOSTUAREN IZENA	HE	DERRIG. DATA	EGI HE	EUSK MAILA
15	ZERBITZU OROKORRA	ADMINISTRARIA (Diruzaina)	3	31/12/1994	0	110

Administrazio -atala	SAILKAPENA	Langile kopurua guztira/ mikroplanerakoa
Zerbitzu Orokorrak	mikroplana	106 ⁶
Hirigintza, obrak eta zerbitzuak	mikroplana	132 ⁷
Gizarte Ongizatea	mikroplana	43 ⁸
Kultura eta Hezkuntza	mikroplana	65 ⁹
Udaltzaingoa	mikroplana	97 ¹⁰

⁶ Derrigortasun data ezarria izanik HE egiaztatu duten 5 langileak eta euskara maila polita duelako langile 1 gonbidatuak

⁷ Dagokio HE baino maila bat gutxiago egiaztatutako langilea eta jendaurreko eginkizunak betetzen dituen beste langile bat.

⁸ Jendaurreko arreta zerbitzua ematen duten hiru langileak, batek egiaztatu gabeko derrigortasun data ezarria duelarik eta beste batek dagokion He baino bat gutxiago egiaztatu duelarik.

⁹ Derrigortasun data ezarria eta HE egiaztatu duen langile bat, Nahiz eta derrigortasun datarik ezarria ez duten dagokien HE baino bat gutxiago egiaztatu duten bi langile eta jendaurreko zerbitzua ematen duten beste bi langile.

¹⁰ Derrigortasun data eta HE egiaztatu duten hiru langile, egiaztatu ez duen langile bat eta jendaurreko lanpostu izateagatik gonbidatutako beste hiru langile.

3.3. HIZKUNTZA EGOERA

Muskizko udaleko hizkuntza egoera zein den ezagutzeko, bi txantiloia jorratu dira: alde batetik *txantiloia orokorra izenekoa* eta bestetik *banakako txantiloia*. Azken hau langile bakoitzarekin betetakoa da. Ikusi II. eranskina.

Txantiloia orokorra Euskara Zerbitzutik bete da eta azpiatal hauek osatzen dute:

1. ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARA MAILA
2. HIZKUNTZA PAISAIA
3. BALIABIDE INFORMATIKOAK
4. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK
5. KANPO PROIEKZIOA

Banakako txantiloia ondorengo atalez osatua dago:

1. JARRERAK ETA SENTSIBILIZAZIOA
2. LAN JARDUN EDO LAN EGINKIZUNEN HIZKUNTZA ERABILERA
3. BARNE ETA KANPO HARREMANAK
4. KANPOKO HIZKUNTZA ESKAERA
5. LEHENTASUNEZKO ATALETAN ITZULPENAK
6. LANA EUSKARAZ EGITEKO GAITASUNA

3.3.1. HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGIAZTATZE MAILA (HEEM)

Derrigortasun indizeen arabera, erakunde bakoitzak bere egoera soziolinguistikoari egokitutako helburu mailakatu jakin batzuetara heldu beharra dauka. Era berean, hizkuntza eskakizunak derrigortasun indize horren arabera ezarri beharko ditu, baita horiek lortzeko epe muga ere, hau da derrigortasun data (DD) ere.


Datuen iturriari dagokionez, zerrenda bateratu bat osatzeko orduan erabilitako iturriak hauek ditugu:

- 2007ko urriak 23ko BAO n argitaratutako Muskizko Udaleko 2007ko Lanpostu zerrenda.
- IVAPen erregistratutako hizkuntza eskakizunen zerrenda.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutako Muskizko Udaleko langilearen datu zerrenda.
- Langileei beraiei eskatutako datuak.

Derrigortasun data igarota duten hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila:


Derrigortasun data jarria duten 14 lanpostuetatik 9 langilek hau egiaztatua dute, gainontzekoek (5) ez dute inolako mailarik egiaztatu.

Derrigortasun data igarota duten hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua da. Orokorrean, derrigortasun data igaro zaien langileen %64,29 dagokion hizkuntza eskakizuna edota altuago bat egiaztatu du, gainontzeko %35,71k ez duelarik inongo hizkuntza eskakizunik egiaztatu.



Udaleko langileen hizkuntza egoera

Bestalde, aintzat hartzen bada udaletxean lanean ari den langile oro, derrigortasun data ezarria izan edo ez kontuan hartu gabe, ikuste da euskararen ezagutzari buruzko datuak ez direla oso onak, izan ere nahiko egoera kezkarria da langileriaren ia %60k euskara mailarik ez izatea egiaztatua.




Oharra: Datu hauetatik kanpo geratu dira hutsik dauden bi lanpostuak eta baita Euskara Teknikariarena ere.

EGIAZTATUTAKO EUSKARA MAILA	LANGILE KOPURUA
HE ik egiaztu gabe	23
1 HE	3
2 HE	5
3 HE	7
4 HE	1

Euskararen nolabaiteko ezagutza egiaztatuta dute udaletxeko 16 langilek, langileriaren %39. Hauetatik %43.75k soilik mantentzen du gaur egun egun batean egiaztatutako hizkuntza eskakizuna.

Egiaztatutako HErI euste maila



Langile bakarrak dagokion Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu du derrigortasun data ezarria izan gabe.

Ondorengo datuok derrigortasun data izan zein ez izan lanpostuei ezarritako Hizkuntza Eskakizunen egiaztapenari buruzkoak dira:


LANPOSTUARI EZARRITAKO HE:	LANGILE KOPURUA
EGIAZTATUA	10*
EZ EGIAZTATUA	24
HE - 1	5

•Hauetako langile batek ezarritako HE baino maila bat altuagoa egiaztatu du.

•Oharra: Datu hauetatik kanpo geratu dira hutsik dauden bi lanpostuak eta baita Euskara Teknikariarena ere

%25,64k badu bere lanposturako ezarritako hizkuntza eskakizuna baieztatua, %12,82k eskatzen zaien maila baino maila baxuago bat baieztatua du eta tamalez %61.54ak ez du egiaztatu bere lanpostuari ezarritako Hizkuntza Eskakizuna.

Langileei euskaraz lan egiteko maila nahikorik duten galdetu diegunean, badutela 10ek erantzun dute langileriaren %25.64.




Euskara maila hobetu nahi al duten galdetzerakoan lortutako erantzunak hurrengo irudiak laburbiltzen du:



Udaletxeko langileak euskaraz lan egiteko prest dauden jakiteko, duten motibazioa zein den eskatu diegu: 0= ez nago batere prest eta 5= guztiz prest nago tartean koka dezaten eta lortutako erantzunak hauek dira:

Euskaraz lan egiteko motibazioa



3.3.2. EUSKARA PLANA

Muskizko Udalean lehenengo Euskara Plana 2003ko abenduaren 19an onartu zen, 2003-2007 plangintzaldiarako, asmo oso onez baina agian eduki oso zehatzik gabe. Eta tamalez hau paper hutsean geratu da ez da jarraipenik egin.


Oraingo honetan aurkezten den Plan honek aurrekoaren jarraipena izan nahi du, aurkitutako trabarik nabarmenenak gaindituz; ez zuela hasierako egoera aurkezten, beraz lor zitezkeen aurrerapausoak ezin ziren neurtu eta ez zituela plana garatzeko gutxieneko ekintza era oso zabalean ezartzen.

3.3.3. ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARA MAILA

Arduradun politikoek euskara maila neurtzeko hizkuntzaren lau trebetasunetan nola moldatzen diren galdetu da: ulermenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean.

Hurrengo grafikoan trebetasun bakoitzean nahiko ongi edo ongi moldatzen direla adierazi duten politikarien ehunekoak jasotzen dira.

Arduradun politikoek euskara maila (%)



Datu hauek baloratzeko, kontutan izan behar da politikariek emandako erantzunetara mugatu gairela


Ehuneko bera da trebetasun guztietarako, %61,54 (13 zinegotzietatik 8k badutela maila adierazten du)

3.3.4. HIZKUNTZA PAISAIA.

Hizkuntza paisaiari dagokionean, errotulazioa, tresneria eta papeleria aztertu ditugu eraikuntza bakoitza bisitatu, bai Udaletxean eta baita beste udal eraikuntza batzuetan ere, batez ere jendaurreko eta gazteei zuzenduriko zerbitzuak ematen diren eraikuntzena.

3.3.4.1. Errotulazioa.

Ondorengo grafikoak erakusten du, udal eraikuntzek euskararekiko oso jarrera baikorra adierazten dutela errotulazioari dagokionean, oso gutxi direlarik gaztelania hutsean dauden errotuluak, euskara hutseko errotuluak nagusi direlarik eta jarraian ele bitan daudenak.



ERAIKUNTZA	Euskaraz	Gaztelaniaz	Elebietan	Marrazki bidez
Udaletxea	%35	%0	%52,5	%12,5
Kultur Etxea	%20	%0	%80	%0
Gaztegunea	%71,5	%0	%28,5	%0
Polikiroldegia	%6,7	%13,3	%80	%0
Forlan/Behargintza	%80	%20	%0	%0

3.3.4.2. Tresneria.

Tresneria aipatzean, kafe makina, fotokopiagailua eta abarri egiten zaio erreferentzia. Alor honetan gaztelania da hizkuntza bakarra eraikuntza guztietako tresnerietan.

3.3.4.3. Papeleria

Hemen euskararen presentzia bermatua dago, eraikuntza guztietan erabiltzen den papelerian, **kiroldegian izan ezik non gaztelania hutsean dagoen**, bestelakoetan ele bitan dago papeleriaren %100.

Hizkuntza Paisaia atal honetan aurkeztutakoaren arabera ondoriozta dezakegu, jendaurreko paisaian (errotulazioa eta papeleria) euskararen presentzia zaindua dagoela, ez horrela barnera, langileei zuzendutakoa, tresnerian.

3.3.4.4. Udaletxeko sarrerako esku-orrien eta beste informazio batzuen apala.

Apal honek udaletxean duen kokapena eta bertan duen presentzia dela eta, interesgarria ikusten dugu honek hizkuntza egoera aztertzea, udaletxeko atarian sartzen den edonor ikusteko modukoa baita, kontuan hartuta apalak duen tamaina.

Zein hizkuntzatan dago esku-orria edo informazioa		
Euskaraz	Gaztelaniaz	Ele bitan
1	2	36
Zein hizkuntzatan dago ikusgarri		
Euskara	Gaztelaniaz	
12	21	

*Datu hauek 2008ko urriaren 10an hartutakoak dira.

Aurreko taulan ikus dezakegun bezala, badago bermatua euskararen presentzia Informazio Apalean, informazioaren %5 soilik gaztelania hutsean baitago, baina ele bitan dauden esku-orrien % 58,33 gaztelaniazko aldetik daude ikusgarri.

3.3.5. APLIKAZIO INFORMATIKOAK.

Atal honetan euskaren presentzia bermatzeko egiteko handia dago, ez baitago aztertutako udal eraikuntzetako¹¹ ordenagailuetan euskaraz erabil daitekeen aplikazio informatikorik, Liburutegian izan ezik.

Hau da liburutegian aplikazio informatikoetan dagoen hizkuntza egoera:

Programa	Zein hizkuntzatan daude erabilgarri?		Zein hizkuntzatan erabiltzen da?	
	Euskaraz duten ordenagailuak (%)	Gaztelaniaz duten ordenagailuak (%)	Euskaraz %	Gaztelaniaz %
Ubuntu	100	0	100	0
Open office	100	0	100	0
Firefox	100	0	100	0
Thunderbird	100	0	100	0

Taulak erakusten duen egoera euskararekiko ezin hobea dela esan dezakegu, udaletxe osoak jarraitu beharreko eredia.

¹¹ Udaletxea, Forlan/Behargintza, Gaztegunea, Polikiroldegia eta Kultur etxea.

3.3.6. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

Atal honetan euskara erabiltzeko irizpideak, hizkuntza ofiziala den aldetik, finkatuta dauden ala ez aztertu da. Hurrengo taulan irizpide bakoitza ezarria dagoen ala ez jaso da.

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	BAI	EZ
Hizkuntza ofizialen erabilera	X	
Administrazioen arteko harremanetan	X	
Administratuarekiko harremana	X	
Lan Hizkuntza	X	
Hizkuntza prestakuntza	X	
Langileen etengabeko prestakuntza	X	
Itzulpen-politika	X	
Tresneria, erabilgarriak	X	
Erregistroa	X	
Web orria		X
Kontratazioa	X	
Diru-laguntzak	X	
Argibideak	X	
Jendeaurreko ekitaldiak (hitzaldiak, jardunaldiak...)		X
Iragarpenak (prensa-oharrak, iragarkiak...)	X	

* Taula hau garatuago ikus dezakegu III. ERANSKINEAN.

Hizkuntza irizpide hauek *Udal Barneko Euskera Erabilera Plana 2003-2007 eta 1/91 Plan para la normalización y promoción del Uso del Euskera* Udal Ordenantzan zehar daude ezarrita, baina gero ez dute erabiltzaileen artean zabalkuntzarik izan, esan daiteke apur bat airean geratu direla.

Beraz hastear dagoen epealdi honetan hizkuntza irizpideekiko egiteko handia dago, batez ere irizpideak udal langileen artean zabaltzea hauek jarrai ditzaten.

3.3.7. KANPO PROIEKZIOA.

Udalaren kanpo proiektzioan euskararen erabilera zenbaterainokoa den aztertzeke, hurrengoak hartu beharko liriateke kontuan: euskararen erabilera argitaratzen diren aldizkari eta liburuetan, web orrian eta egiten diren iragarpenetan. Baina ezinezkoa egiten zaigu argitaratutako liburu eta aldizkariaren eta egiten diren iragarpenen euskararen erabilerari buruzko datu osorik biltzea, ez baitago hauei buruzko erregistrorik, beraz eman genitzakeen datuak ez liriateke inolaz ere fidagarri.

Web orriko informazioa jarraian azaldutakoa da:

-Orrialdera euskaraz naiz gaztelaniaz sar gaitzke, eta behin sartuak orrialdeak ematen dituen aukera guztiak; euskaraz, euskaraz sartzea aukeratu baldin bada eta gaztelaniaz, aukera hori egin bada, erabilgarri daude. Baina udaletxetik ateratako dirulaguntza deialdi ofiziala, eskari-orriak, edo kontratuatarako plegu orri ofizialak batzen dituzten pdf. artxibategiak gaztelania hutsean daude, ez baitago itzulpen ofizialik, baina web orrialdean, bai dirulaguntzei buruz eta konturatuari buruzko informazioaren laburpena ele bitan dago eskuragarri.

Web orriko edukietan hizkuntza ofizialen erabilera maila (www.muskiz.com)					
EDUKIA ¹²	Euskara %	Gaztelania (%)	Elebitan (%)	Euskara z sortu da (%)	Itzuli egin da (%)
Udala	0	0	100	0	100
Udal zerbitzuak	0	10	90*	0	90
Muskiz	0	0	100	0	100
Kultura Kirola	0	0	100	0	100


* Aipaturiko Pdf. artxibategiak dira.

Datuak positiboak dira. Dena dela, etorkizunera begira, garrantzitsua litzateke gaztelania hutsean dauden eduki horiek erreparatzea eta ele bitan eskaintzea, baina Web orriaren bidez egiten den kanpo proiektzioan euskara bermatua badago ere, batez ere itzulpenetara jotzen da, beraz badirudi lan hizkuntza nagusia gaztelania dela oraindik ere.

¹² Hauek eduki nagusiak dira, hauetan barneratuak daude orrian zehar zuzenean eskuragarri dauden beste azpi-edukiak.

3.3.8. BARNE ETA KANPO HARREMANAK.

Atal honetan, udalak dituen harremanetan euskara zenbatean erabiltzen den ikusi nahi harreman hauetan bereiztu egin da, harreman ofizialak (formalak) edo ez ofizialak (ez formalak) diren. Kasu bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen den aztertu da.



Iturria: langileek betetako inkesta.

B.H.O: Barne harreman ofizialak.

B.H.EO: Barne harreman ez ofizialak.

K.H.O.: Kanpo harreman ofizialak.

K.H.EO.: Kanpo harreman ez ofizialak.


Grafikoan adierazi denaren arabera, zera esan daiteke:

- Orokorrean, ahozko harremanetan altuago da euskararen erabilera idatzizkoan baino.
- Eta kanpo harremanetan barnekoetan baino euskara gehiago erabiltzen da.
- Baina oso portzentaia baxuetan ematen da euskararen erabilera udaletxean.

3.3.8.1. Telefono bidezko lehen hitza.

Harremanekin jarraituz, ere galdetu da, udaletxeko langileek zein hizkuntzatan hartzen duten telefonoa, hots,lehen hitza zein hizkuntzatan izaten den.

Telefono bidezko harrera hizkuntza




3.3.8.2. Lan jardunak sortzen dituen barne dokumentu nabarmenen hizkuntza egoeraren azterketa.

Jarraian, udaletxeko langileek eguneroko barne jardueretan sortzen dituzten dokumentu ohikoei buruzko azterketa aurkezten da.

Aztertutako dokumentu motak honako hauek ditugu: Ofizioak, txostenak, bilera deiak,aktak, ziurtagiriak, Ebazpen edo ebazpen proposamenak eta eskabideak.



Astean zenbaitetan sortzen diren honelako dokumentuak azaltzen digu hurrengo grafikoak:

Barne harremanetan sortutako dokumentuak



Dokumentuen izaera aztertzerakoan, kontutan izan dugu langileak berak sortu dituztenen %100, hau da sortze lana hutsa denean, dokumentu irekia beraz eta ez txantilo batean oinarritu den hauek sortzerako orduan.

Dokumentuen izaera




Argi ikusten dugu portzentaia oso altu baten (%63,37) sortzen diren dokumentuak irekiak direla eta sortze hizkuntza gaztelania da.. Ondoren aztertzen da hauetatik zenbait itzultzen diren euskarara.

	Itzultzen dira
Ofizioak	2 (%3.5)
Txostenak	1 (%0.8)
Bilera deiak	2 (%12.5)
Aktzak	1 (%12.5)
Ziurtagiriak	1 (%7.14)
Ebazpen proposamenak	2 (%10)
Eskabideak	0

Aurreko laukiak adierazten duen bezala, sortutako dokumentu irekietatik oso gutxi itzultzen dira, guztietatik %3.46.

Azkenik txantilo bidez sortutako dokumentuen hizkuntza egoera aztertuko dugu, zein hizkuntzatan dagoen.

Txantilo hizkuntza egoera




Ikus dezakegunez nahiko txantilo kopuru handia dago ele bitan (%65), baina hauetatik ez da bat ere euskaraz betetzen.

3.3.9. KANPO HIZKUNTZA ESKAERA.


Kanpo hizkuntza eskaera aztertzeak ere garrantzia du, izan ere, langileak erabiltzen duen hizkuntza, neurri batean behintzat, kanpoko eskariak baldintzatua egon baitaiteke.

Azterketa hau burutzeko lau eskari hartu dira kontuan: udaletxeko beste langile batek egindako eskaria, Eusko Jaurlaritzako langileena, beste administrazioena eta herritarrek egindakoa.


Udal langileek euskara eskatzen dute?




Eusko Jaurlaritzako langileek euskaraz eskatzen dute?



Beste administrazioek euskaraz eskatzen dute?



Herritarrek euskaraz eskatzen dute?




Gure galdetegian 12 langilek (%40) erantzun dute haiek sortutako testuak itzultzen dituztela noiz edo noiz. Hauek sortutako testuen %40 itzultzen dute, eta beti gaztelaniatik euskarara egindako itzulpenak dira.

Itzulpenen kalitateaz galdetu zaienean, hau kontrolatzen dela soilik 2k erantzun dute eta itzulpenen kalitatea 0 eta 5 bitarteko eskala baten, haien ustez 4koa da.

Ondorengo grafikoak itzulpenak nork egiten dituen aurkezten du:

Itzulpenen egileak



4. OINARRIZKO ESTRATEGIAK, ESTRATEGIAK, EKINTZAK ETA KRONOGRAMA.

4.1. OINARRIZKO ESTRATEGIAK.

OINARRIZKO ESTRATEGIA OE1: euskararen erabilera normalizatzeko planaren komunikazioa bermatu

OINARRIZKO ESTRATEGIA OE2: euskara erabiltzearen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa landu

OINARRIZKO ESTRATEGIA OE3: euskarazko eskaintza ugartu eta euskarazko kanpo eskaera handiagoa izan dadin sustatu

OINARRIZKO ESTRATEGIA OE4: langileak gaitu, euskaraz lan egiteko

OINARRIZKO ESTRATEGIA OE5: baliabideak jarri langileen esku, euskararen ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeko

Oinarrizko estrategia hauek ondorengo Estrategien bidez gauzatuko dira:

4.2. ESTRATEGIAK.

Oinarrizko Estrategia OE1: EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN KOMUNIKAZIOA BERMATU

OE1.1 Erabilera Planaren helburuak eta asmoak politikarien eta udal langileen artean zabaldu

OE1.2 Planaren berri eman eragindako atalean sartzen diren langile berriei.

Oinarrizko Estrategia OE2: EUSKARA ERABILTZEAREN ALDEKO MOTIBAZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA LANDU.

OE2.1 Euskaraz lan egiten dutenenganako errekonozimendua landu

OE2.2 Agintari politikoak planaren garrantziaz motibatu, eta ezarpenean inplikatu

OE2.3 Planean parte hartzen ez duten langile eta agintariengan eragin. Aldeko jarrerak bilatu.

OE2.4 Euskara langileen arteko harreman sare informalean integratu.

Oinarrizko Estrategia OE3: EUSKARAZKO ESKAINTZA UGARITU ETA EUSKARAZKO KANPO ESKAERA HANDIAGOA IZAN DADIN SUSTATU.

- OE3.1** Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak definitu, zabaldu eta betetzen direla bermatu
- OE3.2** Herritarrekin, beste administrazioekin eta Udaletxeko lankideekin lehen harremana euskaraz egin dadin bultzatu.
- OE3.3** Udaletxeko euskarazko hizkuntza paisaia bermatu
- OE3.4** Udaletxeko euskarazko irudi korporatiboa sustatu
- OE3.5** Jendearekiko harremana ekarriko duten kontratazioetan euskarazko giza baliabideen eta tresnen presentzia ziurtatu
- OE3.6** Hizkuntzaren erabilera kontuan izan diru-laguntzak esleitzerakoan.
- OE3.7** Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak, ulergarriagoak eta erakargarriagoak izan daitezen

Oinarrizko Estrategia OE4: LANGILEAK GAITU, EUSKARAZ LAN EGITEKO

- OE4.1** Langile bakoitzaren beharrei egokitutako prestakuntza eskaini
- OE4.2** Langileen eguneroko zeregin eta dokumentuei egokitutako material didaktikoa sortu eta hedatu

Oinarrizko Estrategia OE5: BALIABIDEAK JARRI LANGILEEN ESKU, EUSKARAREN AHOZKO ETA IDATZIZKO ERABILERA SUSTATZEKO

- OE5.1** Lan jardun nagusietan euskararen erabilera gehitzeko oinarriak prestatu
- OE5.2** Lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren zerrenda terminologikoak prestatu
- OE5.3** Eguneroko lanean sortu daitezkeen zalantzak argitzeko sistemak zehaztu
- OE5.4** Dokumentu eta ahozko diskurtso nagusien kalitatea neurtzeko baliabideak prestatu
- OE5.5** Baliabide informatikoen euskarazko erabilera ahalbideratu eta sustatu.

Era berean Estrategia bakoitza ondoren azalduko diren ekintza zehatzen bidez egikaritutako da:

4.3. EKINTZAK.

OE1.1 ERABILERA PLANAREN HELBURUAK ETA ASMOAK POLITIKARIEN ETA UDAL LANGILEEN ARTEAN ZABALDU:

OE1.1.1 Udaletxeko erabilera-planaren nondik norakoak biltzen dituen dokumentua prestatu, langileei zuzendua. (honetan hizkuntza irizpideei garrantzia eman, eta Euskara Zerbitzuak beraiei laguntzeko egin dezakeena ezagutarazi).

OE1.1.2 Aurrez aurreko aurkezpenak egin, aurretiaz agintari politikoei, eta gero posibilitateen arabera udal-langile guztiei (euskara teknikariak edo euskara zinegotziak edo alkateak posibilitateen arabera egingo dute aurkezpena).

OE1.1.3 Langileei dokumentua banan-banan bidali

OE1.1.4 Planaren dokumentua politikariei helarazi.

OE1.1.5 Planaren inguruko informazio guztia Udalaren web orrian jaso eta jakitera eman (ekintza honek definitutako beste estrategietan ere eragingo luke planaren inguruko informazio guztiari egiten baitio erreferentzia)

OE1.2 PLANAREN BERRI EMAN UDALETXEAN SARTZEN DIREN LANGILE BERRIEI.

OE1.2.1 Langile berriak erabilera planean nola barneratuko diren zehazten duen protokoloa definitu (eta, egongo balitz, Udalaren harrera planean txertatu)

OE1.2.2 Udaletxera eta, batez ere, eragindako ataletara etorri berri diren langile guztiei euskararen normalkuntzarako planaren berri emateko informazio dokumentu bat prestatu.

OE2.1 EUSKARAZ LAN EGITEN DUTENENGANAKO ERREKONozIMENDUA LANDU

OE2.1.1 Euskaraz lan egiten dutenen jarduera arautzeko protokolo bat prestatu besteak beste, honako aspektuak zehaztuz:

- Itzulpen politika (euskaraz lan egiten dutenek, itzuli edo ez, eta zer itzuli)
- Euskararen erabileraren arabera, zenbait lehentasunen ezarpena: hizkuntza prestakuntzan, etengabeko prestakuntzan, etab.
- Plus antzekoa sortu konbenioan soldatak eguneratzerakoan.
- Arduradun politikoek esker oneko gutunak bidali euskaraz ere lan egiten dutenei.

OE2.1.2 Protokoloa ezagutzera eman udaletxe osoan

OE2.1.3 Protokoloan barneratuko diren langileekin konpromisoak sinatu euskaraz lan egiteko eta ondorioz errekonozimendu sisteman barneratzeko (konpromiso orria prestatu eta, banan banan,, sinadurak bildu).

OE2.1.4 Euskaraz arituko diren langileen sarea sustatu, bai ahoz eta baita idatziz ere, erabilera ohiturak sortuz joan daitezen.

OE2.2 AGINTARI POLITIKOAK PLANAREN GARRANTZIAZ MOTIBATU, ETA EZARPENEAN INPLIKATU

OE2.2.1 Agintari politikoen euskararen aldeko konpromisoa sinatu dezaten lan egin eta konpromisoak ezagutzera eman.

